

9. FUNTSEZKO JARDUERAK

Zein dira egin behar ditugun gauzarik garrantzitsuenak gure proiektuak funtziona dezan?

OINARRIZKO jarduerak

Ekoizpena	Ekoizpena oinarrizko jarduera bat; izan ere, gure produktuak saldu ahal izateko, fabrikatu egin behar dira. Gure kasuan, atzerriko enpresa bat arduratuko da ekoizpen prozesuaz . Horrela, dirua aurreztuko dugu eta etekin handiagoak lortuko ditugu. Hori bai, guk ez dugu zerikusirik ez ardurarik izango ekoizpen kontuekin, horretaz ez garelako arduratuko.
Puntualtasuna bermatu	Puntualtasunarekin honakoa esan nahi dugu: Webgunetik erositako produktuak ezarritako epean heltzea erosleen etxeetara .
Izakinak mantentzea	Izakinak edo stock-a mantentzea ezinbestekoa da erosleen nahi eta beharrei erantzun ahal izateko . Horrez gain, biltegia modu egokian antolatuta egon beharko, bertako produktuak erraztasunez eskuratu ahal izateko.

DIRU-SARRERAK MANTENTZEKO jarduerak

Publizitate kanpainak	Gure produktua ezaguna izan dadin, marketina beharrezkoa da. Horregatik, publizitate kanpaina horiek kalitatezkoaz, landuak eta eraginkorrak izan behar dira.
------------------------------	---

BEZEROEKIKO jarduerak

Produktuaren kalitatea hobetu	Bezeroen iritziak entzunez , gure produktuak izan ditzakeen akatsez ohartu gaitezke. Hala gertatuz gero, gure produktuaren akatsak konpondu eta kalitatea hobetzeko aukera izango dugu.
Arazoak saihestu	Akatsak ahalik eta lasterren identifikatu behar dira arazoak saihestu edo behintzat handiagoak egin ez daitezen.